



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2016KO URTARRILAREN 8AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA**

### **Etorri diren batzordekideak:**

**Mikel Agirrezabala Ezkurdia**  
**Jesus Peñagarikano Labaka**  
**Miren Itziar Arratibel Imaz**

Etorri diren zinegotziak:  
Maria Iciar Jauregui Huarte  
Victoria Rodriguez Feloaga  
Eleuterio Sanchez Garcia

**Idazkaria:** Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2016ko urtarrilaren 8an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia Alkate izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

## **LEHENA:**

### **1.2015KO ABENDUAREN 2KO AKTAREN ONARPENA**

2015ko abenduaren 2an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

**BAKARRA:** Onartzea 2015ko abenduaren 2an eginiko Gobernu Batzarraren akta



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **BIGARRENA:**

### **2.- ZUZKIDURAZKO ETXEBIZITZEN ARRENDAMENDUA EGITEKO ITXARON ZERREDA SORTZEKO EGINGO DEN ZOZKETAN ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK ONARTU**

2013ko otsailaren 6an egindako Udalbatza bilkuran, Euskal Herria 18.2 zenbakian kokaturiko zuzkidura bizitokietako zerbitzu publikoak arautzen dituen erreglamendua eta etxe hauetan bizi ahal izateko betebeharrak eta oinarriak onartu ziren.

Ibarrako udalak bere titulartasuneko Euskal herria 18-2 zk.ko eraikinetan ohiko etxebizitza gisa erabiltzeko apartamentuak utzita, biztanleen sektore jakinei eskaintzen dien zuzkidura-bizitokiaren zerbitzu publikoak erregulatzeko araudi orokorra onartu zuen. Arautegi honen bitartez "Ibarrako udalaren zuzkidura bizitokietako zerbitzu publikoak arautzeko ordenantza"k ezarritakoa garatzen zen, (Ordenantza hori GAOn eman zen argitara abenduaren 20an), 32 zuzkidura bizitoki- beren trastelekuekin- eta 33 aparkalekuen zerbitzu publikorako.

Egun zuzkidurazko etxebizitza guzti hauek esleituak daude baina hutsunerik egonez gero, 2013ko uztailaren 4an egindako zozketako itxaron zerrenda agorturik dagoenez, ezingo liritezke etxebizitza horiek bete. Arrazoi honegatik ezinezbestekoa da itxaron zerrenda berri bat sortzeko zozketa berri bat egitea.

Gobernu Batzordeak, aho batez, honako hau

#### **ERABAKITZEN DU**

**LEHENENGOA:** Onartzea, Ibarrako ASSetako 11.1 Juko Euskal Herria 18.2 zenbakiko zuzkidura bizitokietarako itxaron zerrenda berria egiteko 2016ko urtarrilak 25ean arratsaldeko 19:00etan zozketa berria egitea.

**BIGARRENGOA:** Onartzea zozketan parte hartzeko, interesdunek, honako baldintza hauek betetzea:

- 18 urte beteta eta 35 urte baino gutxiago izatea 2016 urteraren amanneran
- Ibarrako udalerrian urtebeteko antzinasuneko erroldatzea izatea edo bestela gutxienez hiru urte osoz erroldatua egotea azken bost urteetan
- Etxebizitzarik jabetzan ez izatea azken bi urteetan, horrela jasotzen baitu Eusko Jaurlaritzaren dotazio etxebizitzari buruzko araudiak
- Urteko diru-sarretak 3.000 – 39.000 euro bitartekoak izatea indarrean dagoen azken errenta aitortpenaren arabera (2012ko azaroaren 8an, hauxe da indarrean dagoen araudia: " 2011ko irailaren 14ko Agindua, Etxebizitza, Herrilan eta Garraioetako sailburuarena, Babes Ofizialeko etxebizitzetara sarbidea izateko urteko diru-sarreraren haztatuen aldaketari buruzkoa (EHAA 187 zk.).



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
**Euskal Herria**

Bertan zuzkidura etxebizitzetara sarbidea izateko urteko 3.000-39.000 arteko diru-sarrera haztatuen baremoa ezartzen da).

- Egun alokairu hauetan aplikatzen den araudi berdina aplikatuko zaie etxe bizitzaren arrendamendu kontratua egiten bazaie.
- Eskaerak aurkezteko epea 2016ko urtarrilaren 11n hasi eta 20 amaituko da.
- Eskabi-orriak helbide hauetan lor daitezke: [www.ibarra.eus](http://www.ibarra.eus), [gizarte@ibarra.eus](mailto:gizarte@ibarra.eus)

Zozketarako zenbakia, eskatzaileek sarrera erregistroan egiten duten inskripzioaren arabera emango da (orden korrelatiboa jarraituz).

**HIRUGARRENGOA:** Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko 15/1999 Lege Organikoak xedaturikoa betez, adierazten dugu izaera pertsonaleko datu guztiak Ibarra Udalarena den fitxategi eskuzko eta automatizatu batean sartuko direla.

Sinatzaileak datuen egiazkotasuna bermatzen du eta konpromisoa hartzen du Ibarra udalari jakinarazteko egiten den edozein aldaketa.

Datu hauek sortu direneko helburuarekin soilik erabiliko dira eta ez dira hirugarrenei emango interesdunaren baimenik gabe, 15/999 legeak ezarritako kasuetan eta beste lege batzuk jasotakoetan izan ezik.

Eskatzaileek beren helbide elektronikoa Ibarra udalari ematean, baimena ematen diote komunikazio bide gisa, dokumentazioa trukatzeko edo eskaerarekin lotuta, eragiten dioten administrazio egintzen balio osoko jakinarazpenerako erabiltzeko.

Interesdunak, erabil dezake bere eskubidea datuetara sartzeko, horiek zuzentzeko edo indargabetzeko Ibarra Udalari idatzitako eskutitzaren bitartez ( San Bartolome 2, 20400 Ibarra) edo korreo elektronikoz (Idazkaria@ibarrako.eus) gaia adieraziz: "LOPD, Arco eskubideak" eta NAn kopia erantsiz, legeak jasotzen duen moduan.

**LAUGARRENGOA:** Parte-hartzaileen behin betiko zerrenda jendaurrean jarriko da udaletxeko sarreran eta web orrian. Behin betiko zerrenda onartzeko erabakiaren aurka administrazioarekiko errekurtsioa eta, hala badagokio, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango dituzte, argitalpen eta iragarki horietan adierazitako moduan eta epeetan.

**BOSGARRENGOA:** Deialdia prentsan eta Ibarra Udaleko web orrialdean argitaratuko da. Eskabide orriak Udaleko harreran, Kultur etxean eta web orrialdean jaso ahal izango dira.

### **3.- GALDERA ETA ESKAERAK.**

3

GB 20160108



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, goiburuko eguneko hamaikak eta hogeirenean, lehendakariak bilera amaitutzat ematen du eta nik, bitarteko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut, bertan esandako eta erabakitako guztiaren berri jasoz.